

## EUSKARAREN ERABILERA ELGOIBARKO KALEETAN (2005)

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak apirilaren 12tik 17ra bitartean egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren **%40,9k hitz egiten du euskaraz** gure herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko, 7.079 elgoibartarren hizkuntz jokaera neurtu da.

Hauexek izan dira emaitzak:

<b>PERTSONAK</b>	<b>EUSKARAZ</b>	<b>%</b>
<b>7.079</b>	<b>2.899</b>	<b>40,9</b>

**ADINAREN ARABERA** zera ageri da:

	<b>GUZTIRA</b>	<b>HAURRAK</b>	<b>GAZTEAK</b>	<b>HELDUAK</b>	<b>ADINEKOAK</b>
<b>EUSKARAZ</b>	40,9%	58,5%	36,7%	31,5%	36,7%

**Urtez urteko datuak** konparatuz gero, adinaren arabeko emaitzak beti antzerakoak izaten dira. **Elgoibarren**, inguruko herrietan bezala, **haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 58,5)**. Helduak dira gutxien darabiltenak, hau da, helduen %31,5ek bakarrik erabiltzen dute euskara.

**GIROEN ARABERA** zera ageri da:

<b>GIROA</b>	<b>JOLASLEKUAK</b>	<b>EROSKETA GIROA</b>	<b>IKASLEEN IRTEERA</b>	<b>GAZTE GIROA</b>	<b>FAMILIA GIROA</b>	<b>TXIKITEOA</b>
<b>EUSK %</b>	45,8	31	49	26,5	44,3	45,9

**Giro ezberdinei dagokienez**, jolaslekuetan, ikastetxetik irteteen eta erosketa giroan erabiltzen da euskara gehien (urtero errepikatzen dena), ondoren, gazte giroan eta familia giroan, eta bukatzeko, txikiteoan. Aurten, ikastetxeetako irteera izan da jaitsierarik nabarmenena izan duen giroa, batez ere, 15-24 adin tarteko erabilerak eragin du jaitsiera horretan. Familia giroan ere jaitsiera kezagarria eman da, baina horren balorazioa egiterakoan, kontuan izan behar egun horretan hauteskundeak izan zirela eta egun euritsua izan zela, hori dela eta, helduak eta adinekoak izan ziren nagusi neurketa egun horretan. Txikiteo giroan emandako jaitsiera urtez urte errepikatzen den datua da. Hiru giro horietan jaitsiera eman bada ere, beste hiru giroetan igoera izan da, hala nola, jolaslekuetan, erosketa giroan eta gazte giroan. Batez ere, gazte giroan nabaritu da igoera baina erosketa giroan ere nabarmena izan da igoera hori.

**Belaunaldi bakoitzak** esparru ezberdinetan **dituen gorabeheri buruz**, esan behar da helduek, gazteek eta zaharrek gorabehera handiak azaltzen dituztela. Adibide gisa, ikastetxetik irteteen **gazteen** % 20ak bakarrik euskaraz egin badu ere, jolas eta pasealekuetan % 44,5ak hitz egin du euskaraz; **helduen kasuan**, ikastetxeetako irteeran %42,6k egin du euskaraz baina txikiteoan % 17,4ra jaitsi da erabilera. **Adinekoen kasuan**, berriz, ikastetxeetako irteeran, hau da, haurrak jasotzen dituztenean, % 60,2k egitetik, txikiteoan eta familia giroan % 35etik behera egitera pasatzen dira.

**Hurrei dagokienean**, honako hau esan genezake: hurrek bataz beste % 55etik gorako erabilera mantendu dutela salbuespen batekin, hauteskunde egunean neurtutako familia giroan % 49,2 egin zutela, baina lehen esan dugunez, egun horretan helduak izan ziren nagusi kaleetan eta emaitzak bereziak izan dira. Hala ere, kontuan hartu beharrekoa izango da hurrengo urteetan familia giroan egindako neurketaren bilakaera.

Azken urteotan honako hau izan da **euskararen erabileraren bilakaera** :

	1994	1995	1996	1997	1998	2000	2001	2002	2003	2004	2005
<b>HAURRAK</b>	%47'3	%58'9	%52'9	%68'6	%68	%66'7	%63	%70,9	%63,5	%63,6	%58,5
<b>GAZTEAK</b>	%30	%25'2	%29'5	%39'3	%39'1	%37'6	%40	%44,6	%43	%41	%36,7
<b>HELDUAK</b>	%23'3	%23'4	%23'3	%26'7	%29'8	%27'6	%25,7	%32,9	%35,1	%30,6	%31,5
<b>ADINEKOAK</b>	%41'5	%39'4	%40'8	%35'1	%40'6	%33'2	%33,2	%40,8	%41,1	%40,8	%36,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>31'8</b>	<b>31'9</b>	<b>31'7</b>	<b>37</b>	<b>40'3</b>	<b>38'3</b>	<b>37,4</b>	<b>45,5</b>	<b>%44,7</b>	<b>%41,4</b>	<b>%40,9</b>

Elgoibartarren euskararen **erabilera orokorrak** 1994 urtetik aurrera gorantz egin zuen pixkanaka eta 2002 urtean izan zuen igoerarik nabarmenena, baina azken urteotan erabilera orokorrari dagokion portzentajea jaisten joan da (%45,5  $\diamond$  %44,7  $\diamond$  %41,4) eta aurtengoa, %40,9, esan dezakegu azken bost urteko datuen batz bestekora hurbiltzen dela.

Neurketa honen emaitza orokorrak, beraz, alde aurretik egindako aurreikuspenari erantzuten dio.

**Beraz, eta horrelako neurketek euskararen erabileraren bilakaera orokorra zein den jakiteko balio dutela kontuan izanik, eta azken hamar urte hauetan izandako bilakaerari erreparatuz, euskararen erabilerak Elgoibarren %31,9tik %40,9ra arteko igoera izan duela azpimarratuko dezakegu.**

**Elgoibarren, 2005eko apirilaren 26an  
UDALEKO EUSKARA BATZORDEA**